

business&media

Business & Media Advisors

HERRITARREN PARTE-HARTZERA
ADI! EKIMENARI DAGOKION PROBA
PILOTUAREN JARDUERARI BURUZKO
TXOSTENA



Bilbon, 2010eko urtarrilaren 27an

Aurkibidea

Jardueraren laburpena	3
Jardueraren balorazio orokorra	5
Jardueraren xehetasunak:	7
ADI!-ren jarduera bere gunean	7
ADI!-ren jarduera Facebooken	9
ADI!-ren jarduera Twitterren.....	10
Grafikoak	11

ADI!-ren jardueraren laburpena 2012ko urtarrilaren 27an:

■ **adi.parlamentovaso.euskolegebiltzarra.com-en**

2.356 pertsonak bisitatu dute orria

Horietatik **1.978k** mahaiko ordenagailuetatik bisitatu dute eta **378k** terminal mugikorretatik.

Horietatik **144 erregistratu dira**

Horietatik **104k parte-hartze** aktiboa izan dute:

- Bere edukiekin: **90 proposamen eta 77 ohar - Guztira: 167 ekarpen**
- Balorazioekin: **165 boto**

IREKIA gunearekin eta orain Legebiltzarrean eztabaidagai den klima-aldaketaren legeari buruz bertan aldez aurretik egindako eztabaidarekin konparazioa egiteko aparteko aukera dugu. Konparazio horretan agerian geratzen da "Open Ideiak" tresnan zabaldutako eztabaida-foroan, ADI! tresnarena baino jarduera-aldi askoz ere luzeagoaren ondoren, 44 direla parte-hartzaileak une honetan. ADI!-n, berriz, 104k hartzen dute parte aktiboki eta 144 daude erregistratuta (**gizarte-sareak zenbatu gabe**). Kontuan hartuta gai honetan Jaurlaritzatik aurrez aurreko bilerak antolatu zirela tartean ziren eragileekin (eztabaidari lotutako dokumentuak dira horren froga) eta ADI!-n gaiarekin zerikusia duten kolektiboei bakarrik egin zaiela dei email bidez eta solaskide identifikaturik gabe, datu horrek oraindik ere garrantzi handiagoa du analisi honetan.

Klima-aldaketari buruzko legea eztabaidatzen ari diren parte-hartzaile aktiboak IREKIAN: 44

Klima-aldaketari buruzko legea eztabaidatzen ari diren parte-hartzaile aktiboak ADI!-n: 104

■ **Facebooken**

Hedapen handienaren puntuan (11/12/19tik 11/12/25era) **192.062 pertsonari iritsi zaie ADI!-ri buruzko informazioa.**

Horietatik **4.778k bisitatu dute** ADI!-ren Facebookeko **orria.**

Bisitarien kopuru osoan fideltasun-ratioa benetan handia da. **1.121ek atsegin dute ADI!**, eta honako gune hauekin aldera daiteke:

- Diputatuen Kongresua 55
- Europako Parlamentua (gaztelaniaz) 140
- Irekia 2.161 (informazio-kopurua alderaezina da eta sendotze-aldi luzea izan du)

ADI!-ri buruz solasean 166 pertsona ere aritu dira (11/12/20) jardunaldi berean, eta egun batean (11/12/8) 1.609 pertsonako hedapen birala izatera ere iritsi da. Tresnaren estatistiken arabera ADI!-ren berri **192.062** pertsonak izan dute.

14 pertsonak 23 iritzi eta komentario helarazi dituzte 13 solasalditan

▪ Twitterren

Identifikatutako **8 erabiltzailek 40 ekarpen** egin dituzte **@ADI-elpv** erreferentzia gisa aipatuz. Tresnak ez digu eskaintzen ADI!-ren gunean Twitterreko komentarioak partekatzeko #ADIklima etiketaren hedapenari buruzko daturik.

Datu metatuak

GUZTIZKOAK

Eztabaida hiru espaziotan bideratu da, eta hiru espazioetan izandako jarduera batuta honako partaidetza-zifra hauek ditugu:

Parte-hartzaile aktiboak guztira: 126

Ekarpenak eta komentarioak (botoak zenbatu gabe): **230** (167 web, 23 FB, 40 Twitter)

Erregistratutako erabiltzaileak eta zaleak: 1.273 (1.121 FB, 144 web, 8 Twitter)

Bisitak: 7.134 (4.778 FB, 2.356 web, Twitterreko daturik ez dago)

ADI!-ren **hedapena: 192.000** pertsonak baino gehiagok izan dute ADI!-ren berri

Jardueraren balorazio orokorra

Sarrera

Joan den azaroaren 28an web-tresna berri baten bidez **herritarren parte-hartzea** bideratzeko abian jarritako **esperientzia pilotuaren** balorazioak jaso dira dokumentu honetan. **ADI! Eusko Legebiltzarra eta herritarrak elkarrengana apur bat hurbiltzeko** asmoz sortu da, eta teknologiak eskaintzen dituen baliabide guztiak aprobetxatzen dituen **tresnarekin** batera, eta horri lotuta, **estrategia** bat ere jarri da abian tresna bera dinamizatzeko. Horretarako ADI!-ren gunea garatu da ekimenaren ardatz moduan, baina **gizarte-sare** ezagunenekin (zehatz-mehatz Facebook eta Twitterrekin) duen elkarrenerginarekin osatu da, eta horien bidez garatu da jardueraren zati handi bat eta, gainera, ekimenaren berri emateko ere balio izan dute; Open Ideiak foroan, esate baterako, emaitzak ez dira hain adierazgarriak izan.

Lehenengo proba honetarako hautatu den gaia **klima-aldaketari buruzko euskal legea** izan da, interes orokorrekoa den aldetik eta bere eragina ere orokorra den aldetik.

Sortu dituen komentarioak (2012ko urtarrilaren 27ra arte) **eranskin** batean jaso dira legebiltzarkideek kontuan hartu ahal izan ditzaten esandako legearen eztabaida-prozesuan **herritarren iritzia eta ekarpenak legegintza-ganberara helarazteko**, horixe izanik ekimenaren oinarritzko helburua.

Eztabaida zabalik dagoen arren, eta ixteko datarik gabe, agenda-arrazoiak direla-eta urtarrilaren 27an itxi da txostena egin ahal izateko eta egindako txostena legebiltzarkideei urtarrilaren 31n emateko, asmoa baita behar adina denbora izatea legebiltzar-prozesuan ekarpenak baliagarriak izan daitezen.

ADI! plataforman eztabaida zabalik dago eta nahi duenak ideiak ematen jarrai dezake (legebiltzarkideek webaren bidez <http://adi.parlamentovasco.euskolegebiltzarra.org/es/debates/proyecto-ley-cambio-climatico/> gunean sartuta kontsultatu ahal izango dituzte), edo ekimenaren eragina eta baliagarritasuna baloratu dezake eta, aldi berean, gunea hobetzeko ekarpenak egin ditzake.

Ohar orokorrak

Herriarren parte-hartzerako ADI! proiektua legebiltzar-prozesua herriarregana hurbiltzeko eta, aldi berean, herritarrak legebiltzar-prozesura hurbiltzeko jarri da abian. Erakundeak balio diferentziala eskaini nahi du eta, aldi berean, herritarrak erakarri nahi ditu, eta horretarako hartu duen **konpromisoa** da herriarren ekarpenak legebiltzarkideei helaraztea hauek kontuan hartu ahal izan ditzaten; era horretara, bien artean **komunikazio-bide zuzena** ezarri da.

Abiapuntuko baldintzak

Eskema moduan jaso dira ekimena baloratzean gure ustez kontuan izan behar diren baldintzatzaileak:

- **Argitalpen-epeak** legebiltzar-prozesura egokitu behar izan dira
- Lege-proiektuari egindako **errekurtsoen** blokeoak eta ondorengo desblokeoak markatu dituzte ekimena argitaratzeko epeak.
- Lege-proiektuak **aldez aurreko eztabaida-prozesua** izan du Jaurlaritzaren eta gaiarekin zerikusia duten eragileen artean.
- Ingurumen-gaiak interes orokorreko gaiak diren arren, **legearen testuak ez dira interpretatzen errazak** herritar arruntarentzat.
- Plataforma **eztabaida bakarrarekin** eta oso zehatzarekin atera da argitara, eta horrek nabarmen mugatu du bere publiko objektiboa.
- Tresnaren aurkezpenak legebiltzarkideekin eztabaidatzeko **espektatiba** sortu zuen, eta hasierako ekarpenetara mugatu da.
- Ekimenaren **publizitate** bakarrak prentsareko bat eta Facebookeko babes-inbertsio txiki bat izan dira.

Oharrak

Baldintza horietatik eta lortutako emaitzetatik abiatuta, proba pilotuari honako balorazio hauek egiten dizkiogu:

- **Parte-hartzeari buruzko datuak aski onak dira**, eta ezarritako espektatibak gainditu egin dira (100 partaide aktibo eta 3.000 bisita kalkulatu ziren)
- Antzeko ekimenekin egindako **alderaketaren** arabera emaitza, zalantzarik gabe, positiboa da izandako jarraipenari eta erantzunari dagokienez.
- Erabiltzaileen portaerari buruzko zalantzak positiboki argituta geratu dira, ez baita ekarpenik filtratu beharrik izan, eta herritarren aldetik **onarpen-, konpromiso- eta gizalegetasun-mezu argia** jaso da.
- **Ekarpen** gehienak **eraikigarriak** eta baliokoak izan dira, legebiltzar-jardunaren ikuspegitik ezarpen zuzen samarra izango duten ala ez alde batera utzita.
- Gomendatzen da ezjakinek legeak **unibertsalki ulertu** ahal izateko formularen bat bilatzea.
- Joera orokor gisa eztabaidaren titularrek iradokitzen dutenari buruzko ekarpenak egin dira, eta **gutxi dira legean murgildu direnak** sakontasunez aztertzeke. Eztabaida honetan arrazoi horrengatik daude ekologiarekin zerikusia duten gaiei buruzko ekarpenak, gaiak klima-alaketarekin zerikusia erlatiboa izan arren.
- Proba pilotuan hainbat hobekuntza egin badira ere erabiltzaileek egoera berrien aurrean duten portaera ikusi ondoren (eztabaida gehiago, ekarpen gehiago, askotariko gaiak, eta abar) **etengabeko garapena** beharko dute errendimendua optimizatzeko.
- Herritarren joera da ekarpenak egitea, eta ez hainbeste solasaldi edo eztabaida luzeetan murgiltzea, horren aurrean **sakontze-lana suspertzea** komeni da.
- Ekimena abian jarri ondoren, bere lorratza aprobetxatu behar da **jarraipena** emateko; izan ere, ostera, sinesgarritasuna galduko du erakundeak parte-hartzearen alde egindako apustuak.
- Prozesu jarraituan eta partaide gehiago izanda zer gerta litekeen egiaztatu gabe badago ere (arrazoizkoa den bezala ekimena sortzen den unetik aurrera modu iraunkorrean hazten joango da), esperientziak erakutsi du **eztabaidaren ziklo naturala laburra** dela eta luzapenak gutxi erabiltzen direla. Prozesu jarraitu batean, eta prozesuan hainbat eztabaida berez sartzen joaten direnean, jarduera arazorik gabe joango da teilakatzen, baina une honetan jarraipena eman behar zaio itxaronaldirik gabe.

Jardueraren xehetasunak

Jarraian berariaz tresna propio gisa sortutako gunean izan den jarduera aztertzen da, eta horrekin batera Facebook eta Twitter gizarte-sareetako esparru adierazgarrietan izandakoa aurkezten da.

ADI!-ren jarduera bere gunean

adi.parlamentovasco.euskolegebiltzarra.org

Erabiltzaileak

Bere gunean **144 erabiltzaile** erregistratu dira, bai Facebookeko edo Twitterreko bere profilekin, bai ADI!-ren erabiltzaile berri moduan, eta horietatik **104k hartu dute aktiboki parte** beste batzuen komentarioei buruzko balorazioak edo komentarioak egingez. Bere bolumena dela-eta ez dira jaso dokumentu honetan.

Komentarioak

ADI!-ren erabiltzaileen ekarpenak eta komentarioak ordena kronologikoaren arabera jaso dira. **Gaietako** bakoitzean adierazten dira. Guztira 167 dira, ekarpenak eta eragindako komentarioak zenbatuta. Jarraian adierazten den taulan aipatzen dira gaiak eta hizpide dituzten ekarpenak.

▪ Nazioarteko akordioak	1, 8, 9, 25, 26, 66, 76, 83
▪ Energia berriztagarriak	2, 3, 4, 6, 10, 11, 15, 36, 56, 62, 70, 77, 81, 82
▪ Kontsumoa	3, 4, 7, 13, 27, 28, 29, 32, 36, 49, 54, 57, 59, 65, 74
▪ Ekonomia	5, 56, 59, 83
▪ Gizarte-eredua	7, 12, 45, 49, 50, 58, 59, 63, 64, 68, 85
▪ Informazioa	7, 10, 13, 18, 21, 22, 23, 41, 48, 57, 60, 61, 65, 73, 78, 80, 81
▪ Mugikortasuna	7, 10, 13, 16, 18, 19, 27, 31, 35, 37, 43, 45, 52, 81
▪ Hondakinak	14, 20, 23, 24, 30, 33, 34, 35, 36, 37, 39, 40, 45, 48, 55, 58, 67, 70, 73, 75, 86, 87
▪ Herritarren parte-hartzea	17
▪ Energia-efizientzia	35, 57, 74, 77, 85
▪ Orokorra	38, 42, 44, 46, 47, 49, 51, 53, 66, 69, 71, 72, 79, 84, 88

Zerrenda honetan komentarioen nondik-norakoa hauteman daiteke gai-multzo bakoitzean islatzen den bolumenaren arabera. Klima-aldaketari buruzko legeaz ari garela kontuan hartuta, adierazgarria da **hondakinena** izatea gehien errepikatzen den gai-multzoa, berotegi-efektuko gas-isurketekin duen zerikusia oso erlatiboa izanik. Agerian geratu da erabiltzaileek lotu egiten dituztela klima-aldaketa eta ekologia, eta horren ondorioz daude lehenengoarekin zerikusi esturik ez duten hainbat eta hainbat gai.

Informazioa da gehien errepikatzen den bigarren gai-multzoa. Kasu batzuetan ADI! tresnaren prozesuarekin berarekin du zerikusia, baina beste kasu askotan kontzientziazioarekin eta horren ondorioz jarrera hartzearekin, eta erabiltzaileek kontsumoari dagokionez edo eguneroko ekintzek klimaren gainean dituzten eraginen berri izan ondoren ohiturak aldaratzeari dagokionez egiten dutenarekin.

Jarraian **mugikortasuna (jende askoren kezka dela** egiaztatu da eta **eztabaida luzeenak** kutsatzen ez duten ibilgailuen, besteak beste **auto elektrikoaren** edo

bizikleten, erabilerari buruzkoak izan dira), **kontsumoa** eta **energia berriztagarriak** nabarmentzen dira.

Gai orokorren kapituluak etiketa zehatzetako batekin zerikusirik ez duten ekarpen eta komentario guztiak sartu dira.

Eztabaidaren zikloa laburra dela hauteman da, Interneteko joeren eta ohituren berezko ezaugarria izanik. Gauzak gero eta azkarrago gertatzen dira eta lehenago iraungitzen dira. Hirugarren astetik aurrera jarduera oso apala izan da, eta eduki berririk gabeko luzapenek ez dute jarduera suspertu.

ADI!-ren jarduera Facebooken

Gaien sakabanaketari dagokionez ekimenaren gunean hautemandakoaren antzeko joera hauteman da, eta hemen ere, klima-aldaketarekin zerikusi esturik ez badute ere, ekologiaren esparruko arazoak agertu dira. Bolumena apur bat eskasagoa denez, ez dago errepikatu egiten delako nabarmentzen den gairik.

Botoa ematera bultzatzeari dagokionez Facebooken eta ADI! tresnaren erabileraren artean dagoen aldeak agerian jartzen du boto-kopurua (edo "atsegin dut") murriztu dela eta ez dela, beraz, adierazgarritzat jo antolaketa-irizpideak ezartzeko.

Gizarte-sareen balio nagusia ez da hainbeste eztabaida-foro paraleloak sortzea, euren hedapen-efektua baizik. Estatistiken arabera 192.000 pertsonak baino gehiagok izan dute ADI!-ren berri, eta datua benetan oso adierazgarria da.

Erabiltzaile aktiboak FBen

[Iker Estala](#) ekarpen 1
[Cristina Toro Zuleta](#) 3 ekarpen
[Camila Assiar](#) 2 ekarpen
[Fatima Collado Martín](#) 2 ekarpen
[Bea Durán](#) ekarpen 1
[Esti Arriola Espilla](#) ekarpen 1
[Isabel Morcillo Martínez](#) 2 ekarpen
[Redman Martín](#) ekarpen 1
[Aintza Arbola](#) ekarpen 1
[Ainhoa de Endaya](#) 2 ekarpen
[Ana Alvarez de Eulate](#) 3 ekarpen
[Aritz Gomez Unzeta](#) ekarpen 1
[Marcos Fernández Marx](#) ekarpen 1
[Anabel García Canales](#) ekarpen 1

Horietatik inor ez da beste bide batzuetatik erregistratutako erabiltzailea, eta, horrenbestez, ADI!-n parte hartu duten herritarren kopuru osoari batu behar zaizkion erabiltzaileak dira.

Komentarioak

ADI!-ren erabiltzaile ezberdinak partaide izan dituzten solasaldiak jaso dira (ez dira dinamizazio-ekarpenak zenbatu) **gaien arabera** sailkatuta. Guztira 13 solasaldi dira, eta 23 ekarpen.

- Hirigintza 12
- Kontsumoa 5, 11
- Energia iraunkorra 10
- Eraikuntza iraunkorra 8, 9
- Planeta zaintzea 7
- Herritarren parte-hartzea 2, 7
- Mugikortasuna 6, 13
- Argi-kutsadura 5
- Birziklatzea eta hondakinak 1, 4
- Informazioa 3, 4, 13

Gai bakoitzaren ondoren delako gaiarekin zerikusia duten beste gai batzuk ukitu dituzten **solasaldiak** adierazten dira errazago aurkitu ahal izateko.

ADI!-ren jarduera Twitterren

Twitterrek hedapen handia eskaintzen du tresna gisa, eta neurri handi batean beste erabiltzaile batzuekin harremanetan jartzeko definitzen den strategiaren baitan dago. Estrategia selektiboagoak hedapen txikiagoa eragin dezake baina, aldi berean, errendimendu handiagoa; estrategia masiboak, aldiz, gure *jarraitzaileak* ugaritu ditzake, baina mezuak galaraziko dituen zarata ere sor dezake.

Parte hartzeko tresna baten kasuan garrantzi handikoa da itzulerako bidearen, hau da, gure *jarraituetatik* iristen zaizkigun mezuen, baliagarritasunean pentsatzea.

Kasu honetan jarraituen sare bat eratu da (gaur egun 56) eta horrek 33 jarraitzaileko taldea sortu du. Baina #ADIKlima #ADI eta erabiltzaileak sortzen joaten diren etiketek (hala nola #cambioclimatico edo #clima) hedapen gehigarria eragiten dute bilaketen bidez.

Twitterrek ez duenez honi buruzko estatistikarik eskaintzen, ezin dugu hedapenari buruzko datu zehatzik eman, baina bide honetatik sortu diren eta lortu nahi den parte-hartzeari batzen zaizkion komentarioak jaso ditzakegu.

Erabiltzaileak

Honako hauek dira komentarioak egin dituzten erabiltzaileak:

[ProyeSalvavidas](#) komentario 1
[mlopezplana](#) 2 komentario
[Jramos](#) 2 komentario
[Nkn63](#) 5 komentario
[eitbiparralde](#) komentario 1
[Idoiallano](#) 24 komentario
[iozamizu](#) komentario 1
[Maripuchi](#) 3 komentario

Komentarioak

ADI!-ren erabiltzaile ezberdinen ekarpenak jaso dira (ez dira dinamizazio-ekarpenak zenbatu) **gaien arabera** sailkatuta. Guztira 40 ekarpen dira.

- Tresnaren alderdi teknikoak (E/K) 12
- Herritarren parte-hartzea (E/K) 18
- Informazioa 2
- Desfibriladoreak (E/K) 8

(E/K)rekin adierazi dira, gaiarekin zeharkako harremana izanda ere, eztabaidagai den legeari zuzenean ezargarri ez zaizkionak.

Gai bakoitzaren ondoren delako gaiarekin zerikusia duten **ekarpenen kopurua** adierazten da.

Grafikoak

Jarraian hainbat datu nabarmentzen dira grafikoak erantsita, parte hartzeko egin zaien proposamen berri honen aurrean erabiltzaileek izan duten portaera eta tresnaren eraginkortasuna interpretatzen laguntzeko.

Twitterrek ez dizkigunez alderatzeko moduko estatistikak eskaintzen, ekimenaren gunearen kasuan Google Analytics aplikaziok dituen datuak, bai mahaiko ordenagailuaren bertsioan bai mugikorren bertsioan, eta Facebooken estatistikak aurkeztzen ditugu.

ADI! gunea

Google Analytics aplikazioak gune konbentzionala eta terminal mugikorrena bereizten dizkigu, eta bietako bisiten grafikoak egin ahal izan dira, beraz. Portaeran ez dago alde handirik (bolumen-eskala izan ezik), eta egiaztatzen da bisitek hasierako indar hori dutela, baina hirugarren astetik aurrera jarduera nabarmen geldotzen dela eta portaera nahiko apala dela. **Bisita-kopuru** handiena azaroaren 29an izan zen, **322 (mahaiko ordenagailuak) + 34 (mugikorrak)**.

Edukiak oso murrizak badira ere (ekimenari buruzko informazio orokorra baino ez dago, eta eztabaida bakarra aktiboan), **ikusitako orrien** indizea **2,73** koa da bisita bakoitzeko, eta gunean batez beste egindako denbora **4' 20"koa**. Horrek agerian jartzen du **edukiak erakarri duela** erabiltzaileen **interesa**, eta irakurtzeko bere denbora hartu dutela.


ADI! gunea, mahaiko ordenagailuaren bertsioa (adi.parlamentovasco.euskolegebiltzarra.org)

Información de visitantes

28/11/2011 - 27/01/2012

100,00% del total de visitas

Visión general



1.185 usuarios han visitado este sitio.

- 1.985 Visitas
- 1.185 Visitantes exclusivos
- 5.424 Páginas vistas
- 2,73 Páginas/visita
- 00:04:20 Promedio de tiempo en el sitio
- 51,54% Porcentaje de rebote
- 59,60% Porcentaje de visitas nuevas



■ 59,70% New Visitor
1.185 Visitas

■ 40,30% Returning Visitor
800 Visitas

ADI! mugikorrak (m.adi.parlamentovasco.euskolegebiltzarra.org)

Información de visitantes

28/11/2011 - 27/01/2012


100,00% del total de visitas

Visión general



78 usuarios han visitado este sitio.


378 Visitas
78 Visitantes exclusivos
784 Páginas vistas
2,07 Páginas/visita
00:03:43 Promedio de tiempo en el sitio
67,20% Porcentaje de rebote
20,63% Porcentaje de visitas nuevas



ADI! Facebooken

Lehenengo grafikoan ikusten denez, ADI!-ren jardueraren bilakaeraren kurbak gorantz egiten du eta hedapenik handienera abenduaren 26an iristen da, gabonetako egunetan beherantz egiten du eta jarraipena galtzen du. Horrek audientzia-maila honetan eztabaida bizirik mantentzeko ziklo naturala zein den jartzen du agerian. Egia da, proba pilotu bat izanik, bere hazkunde-ahalmena oso handia dela, eta erabiltzaileen bolumenak gora egin ahala elkarreragineko zikloak gehiago sakabanatuko direla espero daiteke.

Nolanahi ere, lehenengo proba pilotuan gutxieneko publizitate-baldintzetan **192.000 pertsonarengana iristea, 4.700 bistatik gora izatea eta 1.121 jarraitzaile izatea** adoretzeko moduko adierazlea da.





- Muro
- Información
- Actividad de tus amigos
- Estadísticas

Me gusta

Alcance

Personas hablando de e...

- Bienvenidos a ADI!
- Ley de cambio climático
- Twitter
- Fotos
- Preguntas
- EDITAR

A

1.121

personas les gusta esto

3

personas están hablando de esto

Eliminar de los favoritos de mi página

Obtener actualizaciones a través de RSS

Ya no me gusta

Compartir

ADI ► Estadísticas

Organización gubernamental · Vitoria-Gasteiz, País Vasco, Spain · [Editar información](#)


[Promociona tu página](#)

28/11/2011 - 27/01/2012

[Exportar datos](#)

Personas a las que has llegado (datos demográficos y de ubicación)

Sexo y edad?



Países?

- 561 España
- 39 México
- 39 Colombia
- 29 Ecuador
- 26 Argentina
- 21 Perú
- 16 Chile
- 11 Rumania
- 11 Venezuela
- 10 Estados Unidos de América
- 8 Senegal
- 8 Nicaragua
- 6 Francia
- 5 Bolivia
- 4 Uruguay
- 4 República Dominicana
- 4 Italia
- 3 Brasil
- 3 Albania
- 3 Paraguay

[Menos +](#)

Ciudades?

- 218 Bilbao
- 31 Madrid, M
- 30 San Sebastián, País Vasco
- 28 Vitoria
- 22 Barcelona, Cataluña
- 19 Quito, Ecuador
- 16 Vitoria-Gasteiz, País Vasco
- 11 Bogotá, Colombia
- 10 Guadalajara, Jalisco, México
- 9 TERRASSA, Catalonia
- 9 Lima, Perú
- 8 Santiago De Chile, Chile
- 8 San Sebastián
- 8 Dakar, Senegal
- 7 Mar Del Plata, Buenos Aires, Argentina
- 7 Logroño, La Rioja
- 7 Santander, Cantabria
- 7 Pamplona
- 7 México, D. F., México
- 7 Barranquilla, Colombia

[Menos +](#)

Idiomas?

- 380 Español
- 359 Español (España)
- 26 Inglés (EE.UU.)
- 24 Francés (Francia)
- 15 Vasco
- 14 Rumano
- 10 Catalán
- 9 Inglés (Reino Unido)
- 4 Italiano
- 4 Albarés
- 2 Alemán
- 1 Árabe
- 1 Indonecio
- 1 Húngaro
- 1 Turco

[Menos +](#)